



Joanes
Leizarraga

1507-1601

BIDeGILEAK

Egilea:
Esther Zulaika



JOANES LEIZARRAGA

(1507-1601)

Bizitza eta garaia

KATOLIZISMOTIK PROTESTANTISMORA

Tamalez, Joanes Leizarragaren bizitzaren inguruko datuak urriak dira oso. Jakin badakigu Beskoitzen jaio zela, herri lapurtarra baina hizkeraz baxenabartarra. Urtearen inguruan, aldiz, adostasunik ez da adituen artean. 1506. edo 1507. urtea izan ote zen zalantza egin ohi dute.

Bere gurasoak nortzuk izan ziren ez dakigu, ezta anai-arrebarik izan zuenez ere. Apaiz katolikoa izan bide zen, baina 1559. urtean Eliza Katolikoa utzi eta kalbinisten alderdira jo zuen.

Bizitzaren inguruko datuen urritasun hori batik bat itzul-lanetan hasi aurreko urteei dagokiela esan daiteke. Ondoko urteen berri zehatzagoa izatea Eliza Protestantek egindako biltzarrei zor zaie. Izan ere, biltzar horien paperek, *Synodes du Béarn de 1563 à 1579 et de 1594 à 1623* eskuizkribuan jasoak ageri direnek, iturri aparta osatzen dute Leizarragaren bizitzaren eta lanaren inguruko xehetasun gehiago izateko.

Protestantismora igarotzea XVI. mendean erlijioan gertaturiko erreforma mugimenduaren adierazpide da. Martin Lutero



Beskoitze, Leizarragaren sorteria



Beskoitzeko eliza

teologoak aldarrikatzen zuen iraultza protestantearen beharrian garrantzitsuenetarikoa bat izan zen, hain zuzen, dotrina berria eskualde ezberdinetara zabaltzea. Horren ondorioz, Biblia ahalik eta hizkuntza gehienetara itzultzeari ekin zitzaion.

Eginkizun horretan, Lutero bera izan zen aitzindari alemanera eginiko itzulpenarekin. Aurrerago, haren hainbat jarraitzailek hartu zuten beste hizkuntzetara moldatzeko langintza. Hor ditugu, besteak beste, Pierre Robert Olivetan teologo protestanteak frantsesera iraulitakoa, eta Jean Kalbin erreformatzailearen kaxima, Armand de Salettek bearnesera aldaturikoa.

Garai hartan herri hizkuntzek berebiziko garrantzia hartu zuten. Sineste berria zabaldu ahal izateko lurralde bakoitzeko mintzairaz aritzea ezinbestekotzat jotzen zen, bertako jendeak dotrina berria bereganatuko bazuen. Ildo horretatik, Joana Albret Nafarroako erreginak asmo hori berori azaldu zuen 1560. urtean katoliktasuna ukatu eta erlijio berrira igaro zenean. Horrela, protestanteen irakatsiak

Joana Albreten
jauregia
Orthezen



Donapaleuko San Pauloren
eliza, Joana Albreten
garaian protestanteena
izan zena

bere agindupeko eskualdeetan —Nafarroa Beherean eta Biarnon bereziki— zabaltzeko erabakia hartu eta gogo handiz ahalegindu zen dotrina berria helarazten.

Herri xeheak, ordura arte tradizio eta sineste zaharrei atxikirik bizi izan zenez, gogor egin zion aurre erlijio berriaren erasoari. Borroka latzak, sarraskiak eta makina bat heriotza eta nahigabe izan ziren katoliko eta protestanteen artean garai hartan, Nafarroa Beherean batez ere.

Hala ere, Nafarroako Erreginak ez zuen atzera egin euskal lurraldea sineste berriaz janzteko ahaleginetan. Orthezen unibertsitate kalbinista eraikiarazi zuen gazteak erlijio berrian hez zitezten. Orobat, mi-



Jean Kalbin
erreformatzailea



Joana Albrete Nafarroako
erregina

nistro euskaldun andana igorri zuen Genevara Kalbinen irakaspenak beregana zitzaten.

DOTRINA BERRIA EUSKAL LURRALDEAN

Protestantismoa errotu nahirik zebilen gainerako lurraldeetan bezala, euskal lurraldean ere Ebanjelioa zabaltzeko premia gertatu zen. Hori dela eta, erreformatzaille euskaldunek beren asmoa bideratzeko eman zuten urrats nagusietariko bat izan zen herri arruntak behar zituen liburu ohikoenak euskaratzea. Berehala ikusiko dugun bezala, egiteko horietako bat Leizarragari bizkarreratu zitzaion: *Testamentu Berriaren* euskarara itzultzea.

1563ko martxoaren 14an kalbinisten lehen sinodoa egin zen Paben, eta hara joateko gonbita egin zitzaion Leizarragari. Biltzar hartan, Nafarroako Erreginarene borondateari jarraikiz, Kalbinen *Testamentu Berria* eta beste zenbait liburu euskaratzearen langintza Leizarragaren gain uzteko erabakia hartu zen.

Garai hartan, nonbait, jakintsu handitzat zeukaten Leizarraga. Liburuzale porrokatua zen, eta euskararen muina eta barruak sakonki ezagutzen zituenez, berebiziko ospea zuen garaikideen artean. Euskaraz gain, latina, greziera eta frantsesa ere ederki asko menderatzen omen zituen. Aurki iritsi zen Erreginarene belarrietaraino haren izenaren hotsa, eta ez zuen atsendenik izan itzul-lanaren ardua Beskoizko maisuak bere gain hartu zuen arte.

Bi urte eman zituen itzulpen lanetan. Amaitua zuelarik, 1565eko maiatzaren lehenean Oloroeko biltzarrak lau laguntzaile euskaldun izendatu zituen lan egina berrikusi eta azken ukituak emateko.

Ondorengo urteetan Eliza berriak eginitako biltzar zenbaitetan Leizarraga izana zela dirudi, eskuizkribuek diotenez. 1566an Nayko sinodoan goraki laudatu zuten Jainkoak hain dohain handiz jantzitako beskoiztarra. Dohain horiei esker Jainkoaren ospea bere eskualdean aurrera bidean jar zezakeela iritzita, Nafarroako herriren batera igortzeko erabakia hartu zen biltzar hartan. Hurrengo urtean Paben egindako sinodoan, Leizarraga, fede

aitormena egin ondoan, ministro izendatu eta Bastidara (Nafarroa Beherea) bidali zuten. Hantxe eman zituen bere bizitzako urte gehientsuenak.

Inoiz maisu lanak egitea ere egokitu zitzaion. 1574an Pabeko biltzarrak hala aginduta, hiru ministroren semeak bidali zizkioten, euskara ikas zezaten. Tartas, Landetcheverry eta Tardetzen semeak izan bide ziren Bastidan Leizarragaren ikaspenak jaso zituztenak.

1575. urtetik aurrera Leizarragaren inguruko berri gutxi dago. Dirudenez, protestanteek eginiko biltzar batzuetan izana zen, 1577 eta 1579 urteetakoetan bederen; ez, ordea, 1594 eta 1596koetan. Zahartza-roak eta gaixotasunek galarazten diote biltzarretan parte hartzea. Agidanez, 1598an Bastidan jarraitzen zuen artzain lanetan. 1601eko biltzarrak, berriz, ondorengoa izendatu zuten, Bastidan ordezkapena egin zezan. Ordurako zendua bide zen.

Data zehatza ematerik ez badago ere, esanetatik ondoriozta daiteke 1598 eta 1601 urte bitartean zendu zela. 95 urte inguru izango zituen, bada, heriotza orena iritsi zitzaionean.



Bastidako herria



Bastidako eliza. Hango erretore izan zen Leizarraga

LANAK ETA INPRIMALDIAK

1571ko irailaren 24an eman ziren argitara Leizarragaren itzulpen lanak, Arroxelako Pierre Hautinen inprimategian. Hiru liburuotan biltzen dira lan horiek: *Jesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria*, *Kalendrerera* eta *ABC, edo Christinoen Instructioneoa*. Sei urte lehenago lana amaitua izanagatik, luze jo zuen argitaratzeak, apika, bukatu ondoko zuzenketen eta ukituen kariaz.

Esan bezala, itzulpenak berrikusteko eta zuzentzeko, 1565ean Oloroeko biltzarrak



Joana Albreten hilobia

lau laguntzaile izendatu zituen. Leizarraga bezalaxe, laguntzaile horiek beste egitekorik gabe utzi zituzten itzul-lanaren berrikusteari buru-belarri ekin ziezaiozten. Antza denez, Piarres Landetcheverry, Sanz de Tartas, Joannes Etcheverry eta Tardetz izan ziren: lehenengo biak —eta agian azkena ere bai— zuberotarrak, eta hirugarrena lapurtarra. Leizarraga bera bezala, laurak apaiz katoliko izanak ziren protestante bihurtu aurretik.

Begirale horiek egindako lanaren berri zehatzik ez badugu ere, gauza ziurra da Leizarragaren gidaritzapean aritu zirela.

1574an Pabeko biltzarrak lan inprimatua banatzeko baimena eman zuen. Langintza horren bultzatzaile nagusia izan zen Nafarroako Erreginak, ordea, 1572an zendu zelarik, ez zuen Leizarragaren liburuak ezagutzeko aukerarik izan.

Hiru liburuen edukiaz, ondorengo xehetasunak eman daitezke:

Jesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria

Izenburu honen pean Nafarroako Erreginaren armarrria dator, eta azpian

S. Mattheuren XVII. kapituluko hitzok: «Haur da ene Seme maitea, ceinetan neure atseguin ona hartzen baitut, huni beha çaquizquiotte. (Mt XVII, 5)». Ondoren, inprimategia, inprimatzailearen izen-abizenak eta urtea datoz, hurrenez hurren: *Rochellan, Pierre Hautin, Imprimiciale, 1571.*

Testamentu Berriaz gain, bestelako testuak ere jasotzen dira liburu honetan. Buruen-buruenik Leizarragak Nafarroako Erreginari igorritako eskaintza-gutuna: «Gucizco Andre noble Ioanna Albrete...». Lehenik frantsesez ageri da, eta euskaraz ondoren. 1571ko abuztuaren 22an izenpetua dator.

Jarraian «Heuscalduney» testu-zatia dator, liburuaren berezko eta benetako hitzaurrea. Euskarazko hitzen ahoskeraren eta idazkeraren gaineko oharrak jasotzen dira, hizkuntza horretan irakurtzeko adina ez dakiten euskaldunentzat lagungarri izan daitezten.

Bi testuok Leizarragak berak onduak dira; berak sortuak, alegia, eta ez beste testuren baten itzulpenak. Gauza bera esan daiteke *Testamentu Berriaren* ondoren



Testamentu Berriaren azala

datorren hiztegi labur batez: «Çuberoaco herrian usançatan eztiraden hitz bakoitz batzu hango ançora itzuliac» izenburuko hiztegiño honetan Zuberoan ezagun ez diren hitzak jasotzen dira —hirurogeita hamaika guztira—, alboan zubererako ordaina dutela.

Lehen liburuki honetan ageri diren gaine-rako testu-zatietatik nabarmen daitezke Jean Kalbinek frantsesez moldatutako itzulpenak. «Batbererac iaquiteco, eta maiz iracurtzeco duen Advertimendua nola Iesus Christ den Iaincoaren Le-guearen fina, eta gure salvatzeco moien

bakoitza», «Othoitzza ecclesiasticoen forma: Sacramenduén administratzeco eta Ezconçaren celebratzeco, bay eta erién visitatzeco manerarequin» eta «Catechismea, cein erran nahi baita, Iesus Christen doctrinán haourrén iracasteco formá, non Ministreac interrogatzen baitu, eta haourrac ihardesten».

Hirugarren idazki hori galde-erantzun eiteko bost atalez osatutako katixima da. Hor berean, gainera, beste bi testu-zati hauek jasotzen dira: «Iesus Christ gure Iaunaren Evangelioo puritatearen araura vicitzeco desira duten Franceséc. Regueri» eta «Iesus Christ gure Iaunaren Evangelioo doctrina puraren araura vicitzeco

desira duten Franceséc consentimendu commun batez berén fedez eguin duten confessionea», berrogei ataletan kalbindarren dotrinaren oinarri erlijiosoak hartzen dituen idazki ezagunena.

Kalendrera

Hauxe da hiru liburuetatik laburrena, hamasei orrialde besterik ez. Hona Izenburu osoa: *Kalendrera, Bazco noiz daten, Ilbargui berriaren eta letra Dominicalaren eçagutzeco manerarequin*. Jaiak, pazkoa, ilargi berria, hainbat protestanteren heriotza datak, etab. jasotzen dituen egutegi protestantea da, erlijio erreformatuaren ohiko egutegiaren arabera moldatua.

ABC, edo Christinoen instructionea othoitz eguiteco formarequin

Hirugarren eta azken liburu honek jatorri ezberdineko hainbat testu biltzen ditu. Aipagarrietakoa dateke lehendabizikoa, Leizarragak berak hitzaurre taxuarekin moldatutako hau: «Heuscal-herrian gazetassunaren iracasteco cargua dutenér eta goitico guciér, I. Leizarraga Berascoizcoac Iaincoaren gratia desiratzen».



Donostian 1979an Bibliari eskainitako lehen astea jasotzen duen edizioa, Leizarragaren TBko azalaren irudia duela

Leizarragaren obra osoaz den bezainbatean, edizio garrantzitsuenak Hugo Schuchardt euskalari alemanak prestatu zuen 1900. urtean, Theodor Linschmannen laguntzarekin. Estrasburgon eman zituen argitara hiru liburuen edizio faksimileak ondoko izenburupean: *I. Leizarraga's Basische Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender und Abc) im genauen Abdruck herausgegeben von Th. Linschmann und H. Schuchardt. Mit Unterstützung der Kais. Akademie der Wissenschaften zu Wien. Strassburg Verlag von K. J. Trübner 1900.*



Hugo Schuchardt
euskalari alemaniarra

Schuchardten ohar baliotsuez hornitutako hitzaurrea ere ageri da edizio horretan («Ueber die Einrichtung des Neudrucks, insbesondere über die Druckfehler und Varianten bei Leizarraga»).


Argitaraldi gehiago ere izan ditu harrezkerok Leizarragaren obrak. Esanguratsuen artean, lehena, 1900ekoaren faksimilea, Donostiako Hordago argitaletxeak plazaratu zuen 1979an.

Lan guztien bilduma berriena Euskaltzaindiak 1990ean argitara emandakoa da. Oraingo honetan, 1979koan ez bezala, Leizarragaren hiru liburuekin batera, goian aipatu Schuchardten hitzaurrea ere

Leizarragaren *Testamentu Berria*.
Hordagoren edizioa



Leizarragaren beste lanak.
Hordagoren edizioa




ageri da, jatorrizko hizkuntzan —alemanez—, ondoren I. Ruiz Arzalluz eta J. M^a. Vélez Latorrek paratutako gaztelaniazko itzulpena duela. Edizio hori ere Schuchardtek eta Linschmannek prestatuaren faksimilea da.

2007koa dugu edizio berriena. Liburu guztiak ez baizik hauta-lanaren emaitza jarri digu eskura Patxi Salaberrik *Leizarraga zaharra*, *Leizarraga gaurkoa* izenburuko liburuxkan. Hainbat gai-sortatan bildu ditu hautatutako testuak: «Gutunak eta aintzinsolasak» sortak hitzurre modura emandako testu-zatiak jasotzen ditu; «Testamentu Berria» deituan, pasarte bibliko ospetsuenak; «Fede-aitorpena, katiximak

eta otoitzak» sortan, erreforma kalbindarri dagozkion sinismen-printzipioak.

Leizarragak ondua egungo irakurlearengana hurbildu nahi izan du prestatzaileak. Xede horri eutsiz plazara du testu-sorta egungo grafiara egokituta, eta irakurketan laguntzeko oharren eta hiztegi mailako argibideen inguruko eranskinaz hornituta.

Ezagungabea da Leizarragaren lanaren lehenengo argitaraldian zenbat ale inprimatu ziren. Berrogeiren bat izan ote ziren diote batzuek. Zoritxarrez, egun ale baten berri baino ez dugu: 1995ean Christie's etxeak antolatutako enkantean Nafarroako Kutxak erosi zuen hura. Gaur gaurkoz ez da besterik ezagutzen.



Leizarragaren lan guztiak.
Euskaltzaindiaren edizioa



Patxi Salaberriren
Leizarraga zaharra,
Leizarraga gaurkoa

Lehen euskal itzultzailea

ITZUL-GAIA, JAINKOAREN HITZA

Leizarragak ondotxo zekien bere lanaren gogortasunaren eta zailtasunaren berri. Langintza horretan aitzindaririk ez eta, beraz, bidea urratzen hasi beharra zuen.

Hastapen guztiak izaten dira nekezak, baina ezbairik gabe esan daiteke Leizarragari are zailagoa gertatu zitzaiola, batetik egokitu zitzaion egitekoaren izaeragatik —itzulpena izaki—, eta bestetik euskaratu behar izan zuen testu motagatik, *Testamentu Berria*. Orobat, itzul-lanean erabiliko zuen hizkera mota hautetsi beharra zuenez, euskalki eta hizkeren arteko

auziak ere zenbait buruhauste ekarriko dizkio. Horren guztiaren isla dira eskaintza-gutuneko hitzok:

...eta neure buruari quasi gogo nahiaz eta probetchu eguiteco desiraz berceric eznacussolaric, eta nic hala vorondate ukanagatic, beldurrez gauçá ez ledin moldez burutan ilki: carguaren hartzera bathiric ecin naidiqueen, eta guti falta cedin non ezpainendin choil guibelera, nacussanean hambatez ene entrepresa handiago, cembatez nic scribatu dudan lengoage motá baita, sterilenetaric eta diversenetaric: eta oraino, translationetan behinçat, usatu gabea (252).



G V C I Z C O A N D R E N O B L E

*Ioanna Albrete Naffarroaco Regina
Bearnoco Andre guchién &c, denari, be-
re cerbitzari gucizco chipiac eta gucizco
obedientae, Ioannes Leizarraga Beraf-
coizcoac, Iesus Christen gratiâ eta ba-
quea defiraten.*

Nafarroako Erreginari egindako eskaintza-gutuna

Dioenez, egiteko zaila eta neketsua agindu zitzaion, hain gaitza non uko egin eta bertan behera uzteko zorian egon baitzen.

Behaztoparri horien jakitun ageri zaigu berriz ere «Heuscalduney» hitzaurreko adieraziotan:

eta badaquigu ecen demborarequin anhitz hitz eta minçatzeco manera, eridenen dela obra hunetan bercela hobequi erran çatenic: halacoetan, gauçá ceren den daquitenetic

batbedera, orhoiturenda, othoi, ecen hunelaco gauçác, guciz lengoage oraino usatu gabe batetan, ecin behingoaz halaco perfectionetan iar daitezquela, nola behar bailiçateque (254).

Hemen ere, euskara «lengoage oraino usatu gabea» dela dio, arestiko aipuan bezala. Irudi luke Leizarragak berak lehen euskal idazletzat jotzen duela bere burua, hots, bera dugula aitzindari eta bide urratzaile euskal literaturan. Erreginari eskainitako azken lerroetan, halaz ere, besterik ere adierazten du: «oraino, translationetan behinçat, usatu gabea» da euskara. Hortaz, itzul-lanetan dugu lehena Leizarraga, baina ez euskara literatura bideetan barrera abiarazten.

Horrenbestez, Leizarraga bera ohartua zen ez zela bere aldiko euskal idazle bakarra, eta *Testamentu Berria* itzuli aurretik bazela euskarazko libururik eta euskal egilerik. Pentsatzekoa da euskal sermolariak ere izango zirela, Gabon-Eguberrietan, Erregeetan... elizara zihoazen kristauei Ebanjelioko pasarteak euskaraz esaten, irakurtzen, itzultzen zizkietenak. Jakina,

sermoiak egiteko idatzi ere egingo zituzten ziurrenik. Baina ez du ematen besterik zegoenik.

Bestalde, gauza jakina da Leizarragaren aurretik euskal literaturak izan duela egilerik. Nafarroa Behereko Bernard Etxepare dugu aitzindari euskarazko testu zabalak abian jartzean. 1545ean argia ikusi zuen *Linguae Vasconum Primitiae* poema-liburuari esker, euskara inprentako moldeetan jalgi zen mundura lehen aldiz. Hogeita sei urte geroago Leizarragak Testamentu Berriaren itzulpena plazara zuen. Iparraldeko literaturan barrena, beraz, liburu inprimatu oso baten bigarren egilea dugu Leizarraga, eta dakigula, lehen euskal itzultzailea.

Galde daiteke ba ote zuen Beskoizkoak Etxepareren ezagutzarik, lan osoan zehar haren izenaren ez obraren aipamenik inon ageri ez bada ere. Garai berekoak izanik, pentsatzekoa da izango zuela haren berri, baina, aldi berean, ez du ematen Etxepareren poema-liburua eredu baliagarriena izango zuenik, bi idazleok gorpuztu zuten lanaren arteko ezberdintasun nabarmenak direla medio: Etxeparerena bertsoz



B. Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* (1545)

egina da —hitzaurrea salbu— eta bere eskukoa; Leizarragarena, aldiz, prosazkoa eta ia osorik itzulia. Edukiari dagokionez ere, Eiheralarreko erretorearena ez bezala, erlijiozkoa da osorik Leizarragaren irakurgaia.

Horrenbestez, Leizarragak itzultzeari ekin zionean hutsetik abiatu behar izan zuela

dirudi, aurretik euskarazko eredurik izan gabe. Arrazoi honengatik jo izan da Leizarraga euskal prosaren sortzailetzat.

Ondutako lana itzulpena izatea behaztoparri gertatu bazitzaion, euskaratu beharreko testuaren izaerak ere egitekoaren nekeza areagotu zuela esan daiteke, itzulgaia ez baitzen edonolakoa, Jainkoaren hitza baizik. Halaxe aitortzen du eskaintza-gutunean:

Haur bay erranen dut, ecen bethi orhoitic nola Iaincoaren manu expressa den haren hitzari deus edequi eztaquion ez eratchequi: hala eguin ahal dudan fidelquiena eguin ukan dudala (253).

Itzulpenak zehatza, zorrotza, itzulingeru eta zeharbiderik gabekoa behar zuen izan. Ondorioz, jatorrizko testuari hertsiki lotu zitzaion, protestanteek Jainkoaren hitzarekiko agertzen zuten begirunearen kariaz.

Edozein modutan, itzulpenean estu baina bere eskuko diren testu-zatietan askatasun handiagoa nabari zaio, Erreginari eskaintako gutunean esaterako.

ITZULPENAREN NONDIK NORAKOAK

XVI. mendean, Frantziako protestanteek ezagutzera eman zituzten Biblietan, Testamentu Zaharraz eta Berriaz gain, bestelako testuak ere jasotzen zituzten, hala nola Kalbinen dotrina eta beste hainbat gehigarri. Leizarragak jokabide horri eutsi zion eta hiru liburukitan eman zituen argitara protestanteen hainbat testuren —buruen-buruenik *Testamentu Berriaren*— euskarazko itzulpena.

Kontuak xehekiago aztertuz gero, Leizarragaren lanaren bi alderdi azpimarratu beharko genituzke. Alde batetik, guztiguztia ez dela itzulpena; hots, badira zenbait orrialde bere eskukoak, berak sortuak. Bestetik, itzulia den gainerakoaren inguruan zalantza egin daiteke zenbaitean: zein testu baliatu ote zuen euskartzeko, alegia.

Lan osoan zehar orrialde gutxi batzuk baino ez dira bere eskukoak: Erreginari egindako eskaintza-gutuna, «Heuscalduney», «Çuberoaco herrian...» hiztegia eta besteren bat. Gainerakoa itzulia da,

eliza kalbindarraren aginduei orpoz orpo jarraikiz moldatua ia beti. Protestanteen testu kanonikoak eta dotrina zabaltzeko prestatutako katiximak —horietako zenbait Jean Kalbinenak— izan zituen iturri Leizarragak itzulpena egiteko orduan. Guztiak, frantsesez idatzitako testuak.

Bereziki *Testamentu Berria* itzultzeko Leizarragak erabili zuen bertsioaren inguruko auziak luze jo du ikertzaileen artean. Batzuen iritzian, Pierre Robert Olivetanek 1535ean argitara emandako Biblian oinarritu zen. Zail xamarra dirudi, halere, hartaz baliatu izana. Izan ere, «Genevako Biblia» zeritzon horri zuzenketak eta orrazketa berriak egin zitzaizkion —besteak beste, Olivetanek berak 1536-1538 urteen bitartean, edota Kalbinek 1543an—, Genevako protestanteen lehen onespren ofiziala 1588ko bertsioak lortu zuen arte. Leizarragaren itzulpena 1571koa izanik, nekez balia zitekeen Genevako Bibliaren azken bertsio horretaz. Lehenagokoa behar zuen izan ezinbestean.

René Lafonen ustez, oroz gainetik 1564ko Biblia frantses bati jarraitzen zaio. Baina hemen ere eragozpenik ez da falta: itzul-

pena amaitu eta sei urte geroago argitaratu zela kontuan izanik, urtebete besterik ez zukeen izango lan osoa egiteko. Ezinezkoa, beraz.

Erabat frogatzerik ez dagoen arren, arrazoizkoagoa dirudi pentsatzea 1559-1563 urteen bitartean argitaratu zen frantsesezko Testamentu Berriren bati jarraiki zitzaiola.



René Lafon

Euskara zaharraren arrastoak

HIZKERA

Bizkarreratu zitzaion egitekoa itzulpena izateak eta aldatu beharreko testuaren izaerak sorrarazi zizkion oztopoak ez dira hemen agortzen. Itzul-lanean erabiliko zuen hizkera ere hautetsi beharra zuen. «Heuscalduney» hitzaurrean agertzen du jarraitu bidea:

Gaineracoaz den becembatean, batbederac daqui heuscal herrian quasi etche batetic bercera-ere minçatzeco manerán cer differentiá eta diversitatea den: raçoin hunegatic sensu eguiazcotic aldaratu gabe, lengoageaz den becembatean

ahalic guehiena guciey adi eraciteari iarreiçui içan gaitzaitza, eta ez choil edocein leku iaquineco lenhoage (sic) bereciri (254).

Leizarraga ohartua zen euskararen barruan «minçatzeco manera» ezberdinak zirela, eta horietatik bakarra hautatzeak irakurle-entzuleen kopurua murriztuko zuela. Asmoz bederen, ez zuen «edocein leku iaquineco» hizkerara mugatu nahi. Itzulpenak dotrina berria jendarteratzea helburu izanik, «ahalic guehiena guciey adi eracitea» ezinbesteko gertatzen zen, eta honek erabat baldintzatzen zuen hizkeraren hautespena.

Aukeratua ezein lekutakoa ez bada ere, neurri handi batean lapurtera dela onartu da aho batez. Beraz, hizkeraren aldetikako hautespenik badela ezin uka daiteke, nahiz hizkera hori leku, etxe edota herri mailakoa ez izan.

Lapurtera nagusi izanik ere, bada beste euskalkietako —zubererako eta behe-
-nafarrerako— hatzik ere testugilearen lanean zehar. Horrek, besteak beste, Leizarragaren hizkera euskalki ezberdinei nolabaiteko tartea eginik hautatua dela uzten du agerian. Asmoaz gain, halere, beste arrazoirik ere eman izan da hiru euskalkiotan —zein bere neurrian— ondu izateko itzul-lana. Esana doan bezala, lau laguntzaile izan zituen, horietatik bi gutxienez zuberotarrak. Gertari horrek ere, akaso, hizkeraren hautaketan inolako ikuskizunik izan ote zuen susmoa egin daiteke. Edozein modutan, erabat ziurta daitekeena da ez zela bere sorterriko hizkeraz baliatu, «ahalic guehiena guciey adi eracitea» izaki xedea.

Leku jakin bateko hizkerara mugatu gogo ez eta, erdibideko irtenbidea hobetsi nahi

izan zuen, tarterik handiena lapurterak hartu bazuen ere. Horrenbestez, Leizarragak berak finkatutako hizkera darabilela ondoriozta daiteke, eta baita «eredu sortzaile» ageri zaigula ere, nahiz eredu hori euskal eredu orotarikotzat ez baizik gehienez ere mugaz haranzkotzat jotzekoa litzatekeen. Ez da ahaztu behar, izan ere, Iparraldeko euskaldunak soilik zituela gogoan.

Delako «eredu» horren gaineko ezau-garrien artean, nabarmen daiteke Leizarragaren maileguetarako joera. Euskal hitz altxorraz gain, itzulpena kanpoko hizkuntzetatik —batik bat frantsesetik baina baita gaztelaniatik eta gaskoieratik ere— hartutako hitzez josita ageri da: *sacrificadore, pescadore, fluvio, creatione, sabbathoa...* Oso maiz, gainera, euskarazko hitz jatorrak, herrikoiak bazterrean utzi eta haien ordeztu maileguzkoak paratzeko batere gupidarik ez du. Horrela, *affariren* ondoan *cena* ere badarabil, *calteren* ondoan *damnatione...* etab.

Maileguen erabilera hori garai bateko itzultzaile eta idazleen joerari jarraitzen zaiola dirudi.

ARKAISMOAREN AZTARNAK

Leizarragak baliatu zuen hizkeraren alderdietako bat jo izan dute begiz euskalari eta filologo zenbaitek beren ikerlanetan: aditzaren alderdia. Beste hainbat ezaugarriren azterketak ondorioztatu du beskoiztarraren hizkera euskara arkaikoaren erakusle argienetakoa dela, eta aditzaren esparrua, bereziki, arkaismo horren adierazle zuzena.

Hugo Schuchardt, Gabriel Aresti, Lino Akesolo, René Lafon, Patxi Altuna, Piarres Lafitte eta beste hainbat ahalegindu dira Leizarragaren aditza aztertzen eta zoko ilunenei argi-izpiren bat ematen han eta hemen argitaratu dituzten lanetan. Schuchardtenak dira, esaterako, 1893ko *Baskische Studien I. Ueber die Entstehung der Bezugsformen des baskischen Zeitworts* (1972, «Sobre la formación de las flexiones de relación del verbo vasco») edota *Revista Internacional de Estudios Vascos* aldizkarian argitaratuak, besteak beste. René Lafonek ere aditza izan zuen hizpide *Le système du verbe basque au XVIème siècle* (1944) liburuan, eta ondoren egin dako beste zenbait ikerlanetan. Bera da, orain arte, XVI. mendeko aditzaz ikuspegi



René Lafonen *Le système du verbe basque au XVIème siècle* ikerlana



Esther Zulaikaren *Ioanes Leizarragaren Aditza* doktore-tesia


orotarikoa eman duen bakarra, Etxepare, Leizarraga, 1596ko *Refranes y Sentencias* eta Garibayren errefrauek aztergai hartu ondoan.

Ikerlan berriena Esther Zulaikaren *Ioanes Leizarragaren aditza* (1999) doktore-tesia da, beskoiztarrak baliatu aditzen inguruko lan monografikoa.

Aldez edo moldez, ikerlan horiek guztiek jasotzen dituzte Leizarragaren aditzaren ezaugarri bereizgarrienak, eta agerian uzten dute Leizarragaren hizkera ezertan zaharzale baldin bada, aditzean dela.

Hor ditugu, esaterako, aoristo deiziopean aztertzen diren subjuntibozko *ethor cedin*, *erran ceçan* erako moldeak, gaurko *etorri zen*, *erran zuen* indikatibozko adizkien balioarekin erabiliak.

Elkarrizketetan gailentzen den erregistro nagusia, bestalde, alokutiboa da: Leizarraga hika mintzatzen zaio Jainkoari, mendiari, hiriari, arimari, aingeruari, deabruari eta abarri. Adizki trinkoen ugaritasunak ere Leizarragaren hizkera bereizgarri bihurtzen du. Aspaldi galduak ditugun *haitsa*, *zarreion*, *arreit*, *dadasate*, *danzut*, *zeraunson*, *auk/aun...* gisako moldeak dira bereizgarri horren adierazle.



Testamentu Berria, Lapurdico escuararat itçulia (1828)



J. Haranederren *Jesu Christoren Evangelio Saindua* (c. 1740)

Aztarna eta eragina

LEIZARRAGAREN ADURRA

Leizarragaren saioak ez zuen ondorerik izan gure artean. Protestantismoak jasan-dako porrotaren ondoren, itzultzailearen lanak ez zuen jarraitzailerik izan hurrengo mendeetako euskal idazleen artean. Haiak beste norabide bat hartu eta leku jakin bateko hizkeraz baliatzen hasiko dira beren lanetan.

Sineste berriak arrakastarik lortu ez izanaz gain, Leizarragak baliatutako hizkerari berari ere leporatu izan zaio hark urratu bidearen ondokorik eza. Hurrengo mendean, Axularrek eta bestek, esaterako, Sarako eta Donibaneko lapurtera hautetsi

zuten, eta hizkera herrikoiagoan moldatu beren lanak.

Leizarragaren hizkera mota itzulpenaren zabalkundeari begira hautatua bada ere, joera zaharzalea eta maileguen erabilera hizkera landua iritsi nahi izanaren erakusgarri direla dirudi. Jokabide horrek hizkuntzari euskal mugetatik haranzko sarbidea eman diola uste duenik ere bada.

Hala guztiz ere, irakurle-entzule gehienek ulertzea xede zuelarik, aldi berean eguneroko hizkera arruntetik saihesten zen mintzaira moldatu zuen. Horrexegatik, agian, Leizarragaren egitasmoa antzu geratu zen, eta ondorengo mendeetako

idazleek baliatuko zuten hizkeran ez zuten aparteko eraginik izan.

Leizarragaren itzul-lana ezagutu zuten autore batzuek, hala ere, zenbait puntutan hark mamitua begien aurrean izan zutela dirudi, baita jarraitu ere tarteka. Horixe da susma daitekeena, adibidez, Harander, Harriet eta Duvoisinek egindako San Mateoren Ebanjelioaren itzulpenetan. Antza, hirurak Vulgatan oinarritu ziren, baina noizbehinka beste eredu batzuetara ere jo zuten —zein bere neurrian—, Leizarragarenera besteak beste.

Zantzu horiek urriak izanik ere, uka ezin daitekeena da Leizarragak moldatutako prosa goraiatzekoa dela. Euskararen eza-gutza sakona zuen ezbairik gabe. Aurretik inolako eredurik ez eta hutsetik hasi behar izanagatik, oso egoki gainditu zituen behaztoparri guztiak.

Oroz gainetik, Leizarraga —eta honen aurretik Etxepare— euskara gainerako hizkuntzak bezain adierazpide egokia izan zitekeela frogatzen ahalegindu zen. Eihalarrekoak euskarari atek zabaldu nahi izan zizkion:



Beskoitzeko Herriko Etxea



Leizarragaren oroitarria
(1571-1971) Herriko Etxearen
horman

Ceren bascoac baitira abil animos
eta gentil eta hetan ičan baita eta
baita sciencia gucietan letratu han-
diric miraz nago iauna nola batere
ezten assayatu bere lengoage pro-
priaren favoretan heuscaraz cerbait
obra eguitera eta scributan imeitera

ceren latin publica mundu guci-
tara berce lengoagiac beçala hayn
scribatzeco hon dela (*Linguae Vas-
conum Primitia*eko hitzaurrea).

Hogeita sei urte geroago, Beskoizkoak uste
bera aldarrikatuko du, Jainkoaren hitza
euskarara bihurtzeko gogoia agertzean:

Alabaina segur içanez ecen Heus-
caldunac berce natione gucién ar-
tean ezgarela hain bassa, non gure
lengoagez ecin eçagut eta lauda
deçagun gure Iainco Iauna... (252).

Ez da, bada, gutxiestekoa itzultzailearen
ekarria.

OMENALDIAK

Leizarragaren saioak ibilbide laburra iza-
nak ez dio gure literaturan ondo irabazia
duen lekua ukatu. Horren adierazle dira,
besteak beste, izan dituen omenaldiak.

1971koa dugu lehena. Leizarragaren la-
nen laurehungarren mendeurrena zela
eta, Beskoitzen omenezko ekitaldia egin
zitzaion.

Ekitaldi hartan hizlari izan ziren, bes-
teak beste, orduko euskaltzainburu Luis
Villasante, Lino Akesolo, Piarres Lafitte
eta René Lafon. Mintzaldi guztiak eman
ziren argitara Euskaltzaindiaren *Euskera*
aldizkarian (1972).

Berriki egin zaio beste omenaldirik ere.
2007ko apirilaren 28an ospatu zen Leiza-
rragaren sortzearen bostehungarren men-
deurrena, sorterrian berriz ere. Euskal-
tzaleen Biltzarrak antolatutako omenezko
ekitaldian, Jean Falagan auzapezaren agu-
rraren eta Piarres Aintziarten aitzinsola-
saren ondoren, hainbat hizlari aritu ziren:
Marie-Christine Urbistondo-Picavea an-
dereia, protestantismoak Euskal Herrian
izandako bilakaera mintzagai zuela; Hen-
rike Knörr euskaltzaina «Leizarragatik
Lazarragara» mintzaldiarekin; eta azkenik,
Piarres Xarriton euskaltzaina, XVI. men-
dearen inguruko hizketaldiarekin.

Ekitaldi horretan bertan egin zen, hala-
ber, gorago aipatu den Patxi Salaberriren
Leizarraga zaharra, *Leizarraga gaurkoa*
liburuaren aurkezpena, Guillermo Etxe-
berriaren laguntzaz Euskal Herriaren
Adiskideen Elkartearen izenean.



Leizarragaren oroitarria bistaraten, Villasante euskaltzainburuaren eta beste zenbait lekukoren aurrean



Leizarragaren jaiotzaren 500. urtemugako ekitaldian, Jean Haritschelhar, Pello Jorajuria (Euskaltzaleen Biltzarreko idazkaria), Piarres Xarriton eta Henrike Knörr (Guillermo Etxeberriaren argazkia)

LEIZARRAGA EGUNGO IRAKURLEAREN BEGIETAN

Gure artean izenez aski ezaguna dugu Leizarraga, euskal literatura guztietan haren inguruko aipamenik ez baita falta. Hark eginaz, haatik, ezin gauza bera esan. Moldatu zuen lanaren izaera eta taxua irakurlearengana heltzeko eragozgarri izan dira seguruenik, baina hizkuntzazko kezka duen edonori zer irakatsi badu ora-indik ere.

Salaberrik emana du lehen urratsa beskoiztarraren ekarria gure artera zabaltze-

ko ahaleginetan. Erljiozko edota filologiazko egitasmoaz kanpo, besterik bilatu nahi izan du edizio argitaratu berrian: «Leizarragaren obra ustez ezezagunegia orraztea, zapore goxoz ontzea eta, azkenik, egungo irakurlearen eskuetan jartzeko erakargarriago bilakatzea» (*Leizarraga zaharra, Leizarraga gaurkoa*, 28. or.). Eta horixe da, hain zuzen, idazle bati egin dakioken omenaldirik garrantzitsuenak: hark ondutakoa gogora ekartzea eta jendarteratzea. Hala bada, euskal literaturaren ibilbidean horren bakarti ageri zaigun Leizarragari ez zaio bidaidetik faltako aurrerantzean.



Leizarragaren omenezko ekitaldira bildu zen jendea (Guillermo Etxeberriaren argazkia)

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagaritik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Irkus Robles-Arangiz margolariari (lehen orriko irudiaren egilea)
- Guillermo Etxeberriari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2008ko urria

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Herminio Madinaveitia, 18-pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 978-84-457-2755-3 (Lan osoarena)
978-84-457-2758-4

L.G.: VI-278/08

BIDCGILLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco